



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2019 BERGARA


MUSIKA  
DANTZA  
ANTZERKIA  
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Urtarrila - Maiatza  
Enero - Mayo




S E M I N A R I X O A


## PLANOA / PLANO



C zona



B zona



A zona

ESZENATOKIA

## Sarrerak / Entradas

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daude:

- Seminarixoko txarteldegiaren ostegunero 18:00etatik 20:00etara.
- [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es) webgunearen bitartez.

Hileko lehenengo ostegunean jarriko dira, hurrengo hilabeteko sarrerak salgai.

Las entradas para las actuaciones de Seminarixoa se podrán adquirir de dos maneras:

- en la taquilla de Seminarixoa todos los jueves entre las 18:00 y las 20:00.
- en la web [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es)

A partir del primer jueves de cada semana se pondrán a la venta las entradas para el mes siguiente.



# KULTURA PROGRAMAZIOA 2019 BERGARA

## Musika / Música

Urtarrilak 3	19.00	The Upper Room	Seminarioan	8 €
Urtarrilak 4	19.00	Spirit	Seminarioan	8 €
Urtarrilak 18	22.00	Nomadak eta Kometa	Seminarioan	8 €
Otsailak 8	22.00	Buffalo	Seminarioan	8 €
Otsailak 9	19.00	Olatz Zugasti	Seminarioan	8 €
Otsailak 22	22.00	Xabi Bandini	Seminarioan	8 €
Martxoak 1	22.00	Karnabaletako kontzertua	Frontoian	8 €
Martxoak 22	22.00	Maite Larburu	Seminarioan	8 €
Martxoak 30-Aprilak 7		Apirilean Musika	Seminarioan	
Maiatzak 11	19.00	Eñaut Elorrieta	Seminarioan	8 €

## Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil

Urtarrilak 13	18.00	Musikarium	Seminarioan	4 €
Urtarrilak 19	18.00	Pinotxo	Seminarioan	4 €
Otsailak 2	17.00/19.00	Go!azen 5.0	Seminarioan	8 €
Otsailak 3	12.00/17.00	Go!azen 5.0	Seminarioan	8 €
Otsailak 16	18.00	Linbo Planeta	Seminarioan	4 €
Martxoak 2	17.30	Pirritx, Porrotx eta Marimotots	Frontoian	6 €
Martxoak 16	18.00	Enaren Kontuak	Seminarioan	4 €

## Antzerkia / Teatro

Urtarrilak 26	19.00	Zoaz Bake Santuan	Seminarioan	8 €
Otsailak 23	19.00	Ghero	Seminarioan	8 €
Martxoak 9	19.00	Txarriboda	Seminarioan	8 €
Maiatzak 4	19.00	Erlauntza	Seminarioan	8 €

## Errexitaldia / Recital

Urtarrilak 12	19.00	Adi-adi, izan hadi!	Seminarioan	8 €
Martxoak 15	20.00	Martuteneko kartzelan	Seminarioan	8 €
Martxoak 23	19.00	Eta zer gehiago?	Seminarioan	8 €

## Bertso jaialdia

Apirlak 12	22.00	Erramu Zapatu bezperako jaialdia	Seminarioan	8 €
Maiatzak 25	17.00	Gipuzkoako Bertso Txapelketako urre kanporaketa	Seminarioan	

3

Urtarrila Enero  
Osteguna Jueves

19.00

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



## The Upper Room

Lau abeslarik (Mikel San José, Karlos Etxaniz, Santi Romano eta Olatz Otxoa) eta hiru musikarik (pianoan, Iñaki Miguel; baterian, Andoni Etxebeste; eta baxuan, María Soriazu) osatuko taldea. The Upper Room taldeak abesti propioak eta gospeleko abestirik ezagunenekoak egiten ditu, euskaraz eta ingelesez. Oso kontzertu partehartzailea, ikuslea kantatzera gonbidatzen duena. *Mesedez, Kebar ibaian, Aleluia, Norbait negar egiteko eta maitatzeko, Oihua da nire deia...* eta beste kantu askorekin gozatzeko aukera.

Conjunto compuesto por cuatro cantantes (Mikel San José, Karlos Etxaniz, Santi Romano y Olatz Otxoa) y tres músicos: Iñaki Miguel al piano; Andoni Etxebeste a la batería; y María Soriazu al bajo. The Upper Room ofrece composiciones propias de gospel así como otros clásicos, tanto en euskara como en inglés. Un concierto participativo que invita a cantar y una oportunidad de disfrutar con clásicos como *Mesedez, Kebar ibaian, Aleluia, Norbait negar egiteko eta maitatzeko, Oihua da nire deia...*

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



## Spirit

Musika afroamerikarraren barruan Donostiako ahots esanguratsuene-tarikoak diren Lide Hernando, Lidia Insausti eta Ainhoa Eguiguren, eta haietkin batera lau musikari: Andoni Etxebeste (bateria), María Soriazu (baxua), Iñaki Santos (órgano) eta Iñaki Miguel (piano). Taldeak oinarri espirituala duten XX. mendeko gospel doinuez eta abesti handiez betetako emanaldi bat eskainiko du: *Oh Happy Day, Down by the riverside, We shall be change, Didn't it rain, People get's ready, Bridge over troubled water...*

Dentro de la música afroamericana, tres de las voces más significativas de Donostia: Lide Hernando, Lidia Insausti y Ainhoa Eguiguren, y acompañándolas, cuatro músicos: Andoni Etxebeste (batería), María Soriazu (bajo), Iñaki Santos (órgano) e Iñaki Miguel (piano). Ritmos gospel con una clara base espiritual las que nos traerá el grupo Spirit, un concierto repleto de grandes canciones del siglo XX: *Oh Happy Day, Down by the riverside, We shall be change, Didn't it rain, People get's ready, Bridge over troubled water...*

**12** Urtarrila Larunbata Enero Sábado

19.00

## Errezitaldia / Recital

Sarrera / Entrada: 8€



## Adi-adi, izan hadi!

**Mixel Ducau** musikaria

**Ekaitz Goikoetxea** bertsolaria

**Eneko Galdos** dantzaria

**Andoni Salamero** olerkaria

"Gizakia bilutsik, erabat aratz eta garbi dator mundura. Txikia delarik, izana bizi du bete betean, senak halaxe eraginda. Denboraz, beldurra, lotsak ezina bizitzen murgilduko du. Irtenbide bakarra: bere dohaina eta talentua aurkitzea izango da. Guztiok gara sortzaile, guztiok dugu dohain edo talentu ezkutu bat, eta hori aldarrikatu gura dugu bertsoez, musikaz, dantzaz, olerkiez".

"El ser humano llega al mundo desnudo, puro, limpio. Cuando es pequeño vive el ser en plenitud, impulsado por su instinto. Con el tiempo, el miedo, la vergüenza le sumergirán en lo imposible. Hay una única salida: encontrar el talento y el don de cada cual. Todos somos creadores, todos tenemos algún don o talento especial, y eso es lo que pretendemos reivindicar a través de los bertsos, la música, la danza, los poemas".

**13** Urtarrila Enero  
Igandea Domingo

**18.00**

## **Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil**

Sarrera / Entrada: 4€



## **Musikarium**

Oihan Vegak aurkeztuta, haurrei zuzendutako antzerkia-musika-kontzertu didaktiko eta pedagógicoa. Musikaren munduan murgilduz, musika tresna ezberdinak ezagutuko dituzte haurrek. Ikuskizuneko protagonista abestea gustuko duen 8 urteko neskatoa da, Iñaki. Olentzero mugikorra oparituzon etik ez du belarritik kendu. Baino dohain berezia du mugikorrak: gehiegizko erabilerak gehien maite duzun hori kentzen dizu eta Iñaki ahotsa galdu du eta ezin du kantatu orain. Mari Domingiren edabe magikoak bakarrik itzuli ahal dio ahotsa Iñargiri...

Espectáculo en el que se conjugan teatro, música y concierto. Presentado por Oihan Vega, Musikarium hace que los niños se sumerjan de un modo didáctico y pedagógico en el mundo de la música y conozcan los diferentes instrumentos musicales. La protagonista es Iñaki, una niña de 8 años a la que le gusta cantar. Pero desde que Olentzero le regaló un móvil no lo despega de su oreja y por utilizarlo demasiado precisamente ha perdido la capacidad de cantar. Ante eso, Iñaki tendrá que recurrir a la pócima mágica de Mari Domingi para recuperar su voz.....

**18**Urtarrila  
OstiralaEnero  
Viernes**22.00**

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



Nomadak



Kometa

## Nomadak eta Kometa

Kutsu elektroniko gehiagorekin eta doinu dantzagarriak albo batera utzi gabe, "Hasieratik +" da Nomadak taldearen azken lana, iazko udazke-nean egindako biraren esperientzia jasotzen duena. Beraiekin batera Kometa talde nafarra izango da Seminarixoan. Smoking Hill taldearen errautsetatik sortu zen Kometa. Hirukoteak 2014an Gazteako maketa lehiaketako entzuleen saria irabazi zuen *Momentuaren zain* abestiarekin. Gaur laukote dira Mattin Saldias guitarrajolea gehitu baitzaie eta "El principio del final" dugu taldearen hirugarren lana.

Sin dejar de lados los ritmos bailables y con más influencias electrónicas, Nomadak nos presenta "Hasieratik +", su último trabajo, que bebe de la experiencia de la gira del pasado otoño. Junto a ellos estarán los navarros Kometa, grupo surgido de las cenizas de Smoking Hill. El trío se hizo con el premio de los oyentes en el concurso de maqueta de Gaztea con la canción *Momentuaren zain*. Hoy son cuarteto al sumarse al proyecto el guitarrista Mattin Saldias y "El principio del final" es el tercer disco del grupo.

**19** Urtarrila Larunbata Enero Sábado

18.00

## Haur antzerkia / Teatro infantil

Sarrera / Entrada: 4€

glu<sup>glu</sup>  
94 412 45 51



## Pinotxo

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntutzat hartuta, eta dantza eta musika ardatz direla, familia guztiari zuzendutako antzezlana. Geppetto bakarrik bizi den zurgin zaharra da. Halako batean egur zati magikoa iritsiko zaio. Egur zati horrekin egurrezko txotxongilo ederra sortuko du: bere kabuz ibili eta hitz egin dezake Pinotxok baina egurrezko semea ez da ume zintzoa izango... Pinotxok gezurrak hanka motza duela ikasiko du. Eta bidean topo egindako aurrenekoarekin fidatzeak izan dezakeen arriskuaz jabetuko da baita.

Tomando como punto de partida el cuento clásico de Carlo Collodi, una función teatral para toda la familia, con la danza y la música como ejes. Geppetto es un viejo carpintero que vive en la soledad de su taller. Un día le llega un trozo de madera mágico con el que creará un títere, un títere que habla y camina por sí solo. Pero el niño de madera no será en absoluto un chico obediente y formal... Pinocho conocerá el lado oscuro de la mentira. Además, también será consciente de lo peligroso que puede resultar fiarse de la primera persona que se cruce en su camino.

**26** Urtarrila Enero  
Larunbata Sábado

**19.00**

## **Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

**TXALO**



## **Zoaz Bake Santuan**

Txalo taldearen ekoizpena, Begoña Bilbaok zuzenduta eta Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreekin. Bikote barregarri amorratua. Akats, ahuldade eta torpeziaz betetako bi pertsonaia ageri dira, baina aldi berean, dibertigarri eta maitagarriak. Bikote bizimodu aspergarriarekin amaitzeko, andreak, zirt edo zart, gizona pozointzea erabaki du. Ekintza gordintze aldera, egin nahi duena aitortuko dio eta giltzapeturik dagoen etxe barruan azken orduak pasatzeko harekin prest dago andrea. Bain, aurreikusitako plana hankaz gora jarriko zaio.

Producción de Txalo con dirección de Begoña Bilbao y la participación de los actores Ane Gabarain y Mikel Laskurain. Una pareja diabólicamente divertida. Dos personajes que brillan por sus defectos, sus debilidades, sus torpezas, a la vez divertidas y entrañables. Para terminar con su monótona vida de pareja, la mujer decide hacerlo a lo grande, envenenando al marido. Para seguir con la fantochada, le confiesa el hecho, y se dispone a pasar con él sus últimas horas en un piso cerrado con llave. Pero, evidentemente, nada sucederá exactamente como estaba previsto...

**2 Larunbata Sábado 17.00 / 19:00**  
**3 Igandea Domingo 12.00 / 17.00** **Otsaila Febrero**

## Haur antzerkia / Teatro infantil

Sarrera / Entrada: 8€



## Go!azen 5.0

School of Arts eskolara joateko ametsa bete zuen Naiak pasa den urtean. Elik eta Garik ere, hainbat gaizki ulertuen ostean, elkarrekin bukatu zuten udalekuan eta Markelek... Markelek Markel izaten jarraitu zuen. Baina horiek guztiak pasa den urteko kontuak dira. Udara iritsi da berriro ere eta Basakabik ateak zabaldu ditu, Zuzen buru duela. Eta honekin batera, abentura, maitasun istorio eta lagunen arteko kontu berriak, batzuetan umorez beteak, beste batzuetan berriz, negarra eragingo digutenak.

Naia cumplió su sueño de entrar en la School of Arts. También Eli y Gari, tras algunos desencuentros, acabaron juntos en la colonia de verano y en cuanto a Markel..., bueno, Markel continúa siendo Markel. De todos modos estas cosas son ya agua pasada. El verano ha llegado y la escuela Basakabi vuelve a abrir sus puertas con Zuzen al frente. Y volverán las aventuras, las historias de amor y los juegos, que nos harán sonreír..., y también soltar alguna lágrima que otra.

8

Otsaila  
OstiralaFebrero  
Viernes

22.00

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



Argazkia: LAURA MINER

## Buffalo

Buffalo 2008an Zarautzen sortutako talde instrumental da. Ander Ederrak (guitarra), David Gorospe (batería) eta Joanes Ederrak (baxua) Musikenen ikasi dute, eta esperientzia luzea dute Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti musikarien alboan, besteak beste. Han eta hemen ibili dira: Heineken Jazzaldia, Kutxa Kultur Festibala, Surfilm Festival... 2017an Foru Aldundiak bultzatutako Katapulta Tour zirkuituan parte hartzeko aukeratu zituzten. "Ulu" beraien hirugarren diskoan zazpi abesti batu dituzte.

Buffalo es un grupo instrumental formado en 2008 en Zarautz. Sus tres integrantes tienen una dilatada trayectoria en el mundo de la música. Ander Ederra (guitarra), David Gorospe (batería) y Joanes Ederra (bajo) completaron su formación en Musikene y han colaborado con músicos como Benito Lertxundi y Olatz Zugasti. Han tocado en diferentes festivales: Heineken Jazzaldia, Kutxa Kultur Festibala, Surfilm Festival... En 2017 fueron seleccionados para participar en el circuito Katapulta Tour, circuito impulsado por la Diputación. "Ulu" es el título de su tercer disco, donde reúnen siete canciones.

9

Otsaila Larunbata Febrero Sábado

19.00

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



## Olatz Zugasti

Aspaldiko urteetan Benito Lertxundiren kontzertuetan musikari eta kantari gisa ikusi dugu eta harpa zeltiarra da Olatz Zugastiren ikurretako bat. "Ur goiena, ur barrena" dugu hernaniarraren azken diskoa, bere hitzetan inoiz baino lan pertsonalagoa, kantu gehienak berak idatzi, konposatu eta moldatuak baitira. Bertan herriarekiko kezkak eragindako kantuak aurkituko ditugu, tradizionalen bat edo beste bere ukituaz gaurkoratuak. Bere azken diskoko abestiez gain, bere aurreko diskoetako kantuak ere entzun ahal izango dira Seminarixoaan.

Músico y cantante habitual de Benito Lertxundi, el arpa celta es una de las señas de identidad de Olatz Zugasti y "Ur goiena, ur barrena" el título de su último disco. Según la cantante hernaniarra se trata de su trabajo más personal ya que la mayoría de las canciones son escritas, compuestas y arregladas por ella misma. Encontraremos ahí temas surgidos de la inquietud por la tierra y algunas otras tradicionales actualizadas con su particular toque. En Seminarixoa podremos escuchar las canciones de su último trabajo así como temas de discos anteriores.

**16** Otsaila Febrero  
Larunbata Sábado

18.00

## Haur antzerkia / Teatro infantil

Sarrera / Entrada: 4€

dejobu



## Linbo Planeta


Inork oroitzen ez duen leku bat. Ondarrez, zaborrez, eta behin etxe izan zirenenean hondakinez inguratutako leku urrun bat. Gizaki bakarra bizi da bertan, Numa zortzi urteko neskatila. Hondamendiaren erdian bere bizilekua sortzea lortu du eta tarteka jasaten dituen erasoei bizirauten ere ikasi du. Baino familia eta lagunak faltan botatzen ditu eta goiz batean jolasteaaz sekula aspertuko ez den lagun bat azalduko zaio, Ibrahim txakurra. Inoiz sumatutako bidaia batean murgilduko dira biak.

Un lugar lejano que nadie recuerda. Rodeado de arena, desperdicios y las ruinas de lo que alguna vez fueron casas. Un lugar con un único habitante: Numa, una niña de 8 años que ha logrado crear su morada en mitad de la destrucción y también ha aprendido hacer frente a los ataques. Pero echa de menos a su familia y amigos y una mañana aparecerá alguien que no se cansa nunca de jugar, el perro Ibrahim. Juntos emprenderán un viaje que nunca habían imaginado.

**22****Otsaila  
Ostirala****Febrero  
Viernes****22.00**

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



## Xabi Bandini

Xabi Bandini berriro dator bueltan eszenatokietara bakarlari gisa atera duen lehenengo lanarekin: "Begibakar". Alberto Isaba musikaria lagun duela, elementu minimoekin egindako lana eskaintzen digu naparrak: ahotsa, guitarra eta sintetizadorea. Kerobiaren kanta eta proiektutako irudiez lagunduta, lan berriak autorearen unibertsora eramango gaitu, emozioz eta pasioz beteta. Xabik eta Albertok diotен bezala, butakan disfrutatzeko proposamena, hunkigarri bezain intimoa.

Xabi Bandini vuelve a los escenarios para presentar su primer disco en solitario: "Begibakar". En compañía de Alberto Isaba, el navarro nos ofrece un trabajo elaborado con mínimos elementos: voz, guitarra y sintetizador. Apoyado en canciones e imágenes de Kerobia, este nuevo trabajo nos lleva al universo personal del autor, repleto de emoción y de pasión. Como destacan Xabi y Alberto, una propuesta emocionante e íntima ideal para disfrutarla desde la butaca.

**23** Otsaila  
Larunbata Febrero  
Sábado

19.00

## Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€

TARTEAN  
teatroa



## Ghero

3000 urtea. Euskara desagertzeko zorian dago. Azken euskaldunak izkin egin nahi dio halabeharrari. Benetako misterioa ez da gure hizkuntzaren jatorria, ezbada bere biziraupen harrigarria. Ghero, kondairen kondaira bat, euskararen biziraupen harrigarriari buruz. Ikuskizunean dozena bat hizkuntza desberdin erabiltzen dira. Bederatzi istorio, bederatzi antzerki poema, euskeraren planetaren inguruan orbitatzen. Patxo Telleriaren lana, Jokin Oregik zuzenduta eta Mikel Martínez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikazaren partaidezarekin.

Año 3000. El euskera está a punto de desaparecer. El último euskaldun quiere burlar a un destino que parece inevitable. El verdadero misterio no es el origen de nuestro idioma, sino su supervivencia. Ghero, fábula de fábulas sobre la asombrosa supervivencia del euskara. Este espectáculo utiliza una docena de idiomas diferentes. Nueve historias, nueve poemas teatrales, orbitando alrededor del planeta euskara. Una obra de Patxo Telleria con dirección de Jokin Oregi y los actores Mikel Martínez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri y Ane Pikaza en el reparto.

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



## Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Karnabaletako kontzertua

Karnabaletako giroa berotzen urte dezente daramatzate Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak. Aurten ere kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuaren eta ohi denez sorpresaz beterikoa kontzertua izango da, musikaz gozatzeko eta, aldi berean, lagunartean barre egiteko eta ederki pasatzeko. Ea orainoan zer nolako mozarro eta ikuskizunarekin datozen herriko musikariak. Musika gauza serioa da, bihurria ere zenbaitetan, eta poza ekartzen duenean, gozamen hutsa.

La Banda de Música y la Orquesta Sinfónica llevan ya muchos años animando el Carnaval. Este años no faltarán a la cita con el concierto que ofrecen cada año en el Frontón. Y como es costumbre será un concierto repleto de sorpresas con el doble objetivo de disfrutar de la música y, al mismo tiempo, reír y pasarlo bien entre amigos. Veremos con qué espectáculo y disfraces nos sorprenden esta vez nuestros músicos. La música es cosa seria, también puede ser juguetona, y si además aporta alegría se convierte en un auténtico placer para los sentidos.

**2****Martxoa Marzo  
Larunbata Sábado****17.30****Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil**

Sarrera / Entrada: 6€

**Katxiporreta**

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots

"Musua" ikuskizunarekin datozen Karnabaletan Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Mundua mundu denetik, lurra biraka ari da eguzkiaren inguruan. Eta dei egiten dio lurraldi esnatzea, azaleko zomorroak astindu eta mozorrotzea. Mundua mundu denetik, hartzak kobazulora sartzen dira neguko solstizioetan eta kilkerrak kanpora ateratzen. Eta guk dantzatu eta kantatu egiten dugut neguan zein udan, eta ohitura zaharrak mantendu eta berriak sortzera jolastu. Munduak biraka segi dezak musuak ere ezinbestekoak dira...

"Musua" es el último espectáculo de Pirritx, Porrotx y Marimotots. Desde que el mundo es mundo la tierra gira alrededor del sol y el sol nos despierta y nos anima a espantarnos los bichos y a disfrazarnos. Desde que el mundo es mundo los osos hibernan en las cuevas y los grillos cantan en verano. Y nosotros cantamos y bailamos sea invierno o verano, y mantenemos las viejas costumbres y jugamos a crear algunas nuevas también. Y los besos también son imprescindibles para que la tierra siga girando ...

9

**Martxo  
Larunbata****Marzo  
Sábado****19.00**

## Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€



Argazkia: OTXABI STUDIOA

## Txarriboda

Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkondu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegaiaren aitak eta Ibertrolako handi-mandiak, antolatu du ospakizun festa itzela. Gonbidatuaren artean Txusa azalduko da, gizon gorputzean bizi den emakumea, eta Imanolen aitaren azken bikotea izandakoa hura hil artean. Baino ezuste hau beste askoren hasiera besterik ez da izango eta ezkontza behar zuenak, Txarriboda izaten amaituko du.

Mireia e Imanol conforman una pareja perfecta. Hoy es el día de su boda y rebosan felicidad. El banquete nupcial corre a cargo del padre de la novia, Patxi Bilbao, magnate de Ibertrola que ha organizado una gala por todo lo alto. Entre los invitados, aparece Txusa, una mujer que hoy en día se siente hombre y que fue la última pareja del padre de Imanol hasta su fallecimiento. Pero esto no es más que el inicio de un montón de imprevistos y sorpresas que harán que esta boda se convierta en un Bodorrio/Txarriboda.

**15****Martxo  
Ostirala****Marzo  
Viernes****20.00**

## **Errezitaldia / Recital**

Sarrera / Entrada: 8€

Euskaltzaindia



## **Martuteneko kartzelan**

Duela zenbait urte, Bernardo Atxaga idazleak euskal literatura zaharrari buruzko hitzaldia eman zuen Martuteneko kartzelan. Ekitaldi hura gogoan, irakurraldi dramatizatu bat prestatu du, orduan izandako bizipenak kontuan hartuz. Agertokian, Jose Kruz Gurrutxaga aktorearen laguntza izango du. Euskaltzaindiaren mendeurrenaren harira sortutako emanaldia da, eta ospakizunetan Arantzazun aurkeztu ondoren, Bergaran ikusteko aukera izango dugu.

Hace algunos años, el escritor Bernardo Atxaga ofreció una charla sobre literatura clásica vasca en la cárcel de Martutene. Retomando aquel acto, ha preparado una lectura dramatizada basándose en las vivencias que tuvo en aquel momento. El actor Jose Kruz Gurrutxaga le acompañará en el escenario. Se trata de un espectáculo creado a raíz del centenario de Euskaltzaindia, y tras su estreno en Arantzazu, tendremos ocasión de disfrutarlo en Bergara.

**16 Martxoa Marzo  
Larunbata Sábado**

**18.00**

## **Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil**

Sarrera / Entrada: 4€

**princeses  
2 barbudas**



## **Enaren kontuak**

Geure uztako hamaika kanta, enaren istorioz josiak: nola egiten duten habia, zer jaten duten, kumeak nola hazten dituzten, zer janzen duten, nora bidaiatzen, zerekin egiten duten amets. Afrikako migraziotik iritsi berri diren lau enara bizardun topatuko dituzue oholtzan, jostailuzko musika-tresnekin eta pop erritmoekin kontzertu bat emateko prest.

Jostailuzko intrumentuekin sortutako musika eztia, eta bizardun printzesak baten ahotsa kantu eta ipuinei tiraka. Melodia arinak, hitz dibertigarriak eta tonu ironikoa nagusia, moralismotik urrun.

Once canciones de composición propia que hablan de cómo hacen el nido, que comen, su crianza, su vestido, sus viajes, el canto o sus sueños. En el escenario encontrarás cuatro golondrinas barbudas recién llegadas de la migración africana para dar un concierto con instrumentos de juguete y ritmos pop. Música suave tocada con instrumentos de juguete, donde la voz de la princesa barbuda es el hilo conductor de canciones que son cuentos. Historias con melodías pegajosas, letras divertidas y fáciles de seguir, libres de moralismos y con toques irónicos.

22

**Martxo  
Ostirala**

**Marzo  
Viernes**

22.00

## **Musika / Música**

Sarrera / Entrada: 8€



# Maite Larburu

Maite Larburu musikari bidaiaaria da. Biolin jole klasiko nomada, ogibidez. Euskal Herrian Neighbor taldearen kantugile eta gidari egin zen ezagun. Baino oraingoan proiektu propio eta berria dakar. Billie Holiday kantariak ezagun egin zuen arrazakeriaren kontrako *Strange Fruit* ereserkia abiapuntu hartuta, bakarkako lan berria sortu du: "Hezurren azpian" diskoa. Larbururen estiloa eklektikoa da. Hots-jostun bat izan nahi du. Ahotsa, biolina, gitarra klasikoa zein elektrikoa, ukelelea, sruti boxa..., ditu musikaren osagai. Horrez gain, Carlos Taroncherren klarinete baxuak eta perkusio piloa. Aida Torres eta Beñat Iturrioz ere perkusioekin arituko dira.

Maite Larburu es música viajera, violinista clásica y nómada de oficio. Tras liderar el grupo Neighbor, ahora nos presenta un disco propio, "Hezurren azpian", en el que toma como referencia *Strange Fruit*, un himno contra el racismo que diera a conocer Billie Holiday. El estilo de Larburu es ecléctico y quiere ser como una costurera de sonidos. La voz, el violín, guitarra clásica y eléctrica, el ukelele, el surti box... son algunos de los ingredientes de su música. Además, el clarinete y la gran variedad de percusiones de Carlos Taroncher, al que apoyarán Aida Torres y Beñat Iturrioz.

**23****Martxoa Marzo  
Larunbata Sábado****19.00**

## **Errezitaldia / Recital**

Sarrera / Entrada: 8€



## **Eta zer gehiago?**

German Ormazabal eta Xabier Lizaso pianojoleak eta bertsolari/idazle bat: Andoni Egaña. Lehendik elkarrekin lan eginak ziren baina inoiz ez bi piano aldi berean oholtzan. Rachmaninov, Chopin, Ravel edota Bernsteinen lanei storio bat erantsi diote, hitzez eta bertsoz Egañak kontatuko duena. Hamazazpi-hemezortzi urterekin askok eta askok erabaki beharreko bidegurutze bat izaten dugu aurrean: ikasten segi edo ez. Eta ikasten segitzekotan ze bide hartu.

Los pianistas German Ormazabal y Xabier Lizaso y el bertsolari/escritor Andoni Egaña ya habían colaborado antes en otros espectáculos, pero jamás habían hecho coincidir la presencia de dos pianos en el escenario. En esta ocasión, añaden a obras de Rachmaninov, Chopin, Ravel o Bernstein una historia en la voz de Egaña, una historia en torno a la decisión de seguir estudiando a los 17-18 años. En caso afirmativo, ¿qué he de estudiar?

**30 Martxoan  
7 Apirilak Marzo  
Abril**

## Musika / Música

Bergarako  
Musika Eskola



## Apirilean Musika

Apirilean Musika programaren 15. ekitaldia ospatuko da martxoaren 30etik apirilaren 7ra bitartean. Aurreko urteetan bezala, musika hitzordu interesgarri beterik dator programazioa eta musika herriko txoko guzietara iritsiko da aurten ere, Seminarixoa erreferenteetako bat izanik. Musika Eskolako ikasleak eta kanpotik etorrirako musikariak izango dira benetako protagonista, eta herritarrei parte hartzeko eta musikaz gozatzeko gonbitema luzatu nahi diete.

Apirilean Musika cumple este año la 15<sup>a</sup> edición, y como en años anteriores el programa se presenta cargado de interesantes propuestas musicales que llegarán a todos los puntos del pueblo, incluyendo a Seminarixoa como uno de los puntos referentes. Los alumnos de Musika Eskola y los músicos venidos de fuera, que serán los auténticos protagonistas, lanzan una invitación a todo el que quiera disfrutar de esta fiesta musical.

**12****Apirilak  
Ostirala****Abril  
Viernes****22.00**

## Bertso jaialdia

Sarrera / Entrada: 8€



## Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia

Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia hitzordu klasikoa da dagoeneko. Bergarako Bertso Eskolarekin lankidetzen, aurten ere bertsolari onenetakokin gozatzeko aukera izango dugu. Garai baten Udal Pilotalekuaren ospatzen zen jaialdia Seminarixoa hartuko du bigarren urtez. Ohikoa denez, giro aparta ziurtatuta, eta gai jartzale lanetan Bergarako Bertso Eskolako kide bat. Guztien artean ikusleak asetzeko helburuarekin.

El festival de bertsos de la víspera del Sábado de Ramos se ha convertido en un clásico. Esta vez, y de la mano de los miembros de Bergarako Bertso Eskola, también tendremos la oportunidad de disfrutar con los mejores bertsolaris. El recinto de Seminarixoa acogerá por segundo año la cita que se ha venido desarrollando durante años en el Frontón. Como es costumbre, el buen ambiente está asegurado y que el público disfrute es el objetivo. En cuanto a los temas que los bertsolaris tendrán que desarrollar serán los propuestos por los miembros de Bergarako Bertso Eskola.

**Antzerkia / Teatro**

Sarrera / Entrada: 8€

**vaiven**  
producciones

## Erlauntza

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera ezkon aurreko agurra ospatzera. Elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai... Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, alkohola..., eta erlauntz bat. Erleak omen dira animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen dira... Mireia Gabilondo zuzenduta eta Itziar Atienza, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz eta Naiara Arnedo aktore lanetan.

Un grupo de amigas de la infancia acude a una casa rural para celebrar la despedida de soltera. Aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o tal vez sí... Lo que a priori iba a ser un fin de semana a lo loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, alcohol..., y un enjambre. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y lo hacen bailando... Con dirección de Mireia Gabilondo e Itziar Atienza, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz y Naiara Arnedo en el reparto.

## **Musika / Música**

Sarrera / Entrada: 8€



## **Harian**

**Eñaut Elorrieta & Kaabestri String Ensemble**

Musikarako duen berezko dohaia oinarri, etengabe experimentatzeko eta hobetzeko grinak eraginda iritsi da Eñaut Elorrieta gurdaino, kantuen sorkuntza eta interpretazioaren zidorretatik. "Harian" izeneko proiektua klasiko bezain berrizalea da, erronka kantariarentzat eta ondoan izango duen Kaabestri String Ensemble hari boskotearrentzat. Era berean, "Deserriko kantak" diskatiko hautatutariko sorta eder bat eta Ken Zazpi taldearen hainbat abesti ere eskainiko dituzte.

Su gran talento natural, unido al afán de mejora y la experimentación continua, han traído a Eñaut Elorrieta hasta nuestros días a través de los sinuosos caminos de la canción y la creación musical. Este nuevo proyecto, "Harian", es clásico y renovador a la vez, un reto excitante para el cantante así como para el quinteto de cuerda que le acompaña. El repertorio de esta gira se completa con una selección de canciones del disco "Deserriko kantak" y también de composiciones propias que interpretaba con Ken Zazpi.



# SEMINARIO A

## KULTURA PROGRAMAZIOA 2019 BERGARA

MUSIKA  
DANTZA  
ANTZERKIA  
HAURRENTZAT EMANALDIAK

